

Nisa Goiburu, aitortzaren peskizan





AURKIBIDEA

Iritzi Edurne Larraza Mendiluze **3**

Elkarrizketa Naroa Garaialde,
arbitro txartelak eskuan **4-7**

Asteko Gaia Mundu ikuskerarekin
etxean ari da sortzen
Nisa Goiburu **10-17**

Begirada Grafikoa Pili Aguado **19**
Agenda 20-23

PlazanBazan Denbora-pasak **24-25**
Elkarrizketa Miriam del Rio
turismo iluneko
zirrikitueta barrena **26-29**



Azaleko irudia
Aitor Arroyo Askarai

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 95€

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bai erabiltzaile eta
lana eskaratu

Bikam

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altoz,
Amasa-Villabona, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza,
Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde,
Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza,
Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.



Zerk eragiten du gehiago, gustuak ala presio sozialak?



EDURNE LARRAZA MENDILUZE
DONOSTIAKO INFORMATIKA
FAKULTATEKO IRAKASLE ETA
IKERTZAILEA (UPV/EHU)

Mila bederatziehun eta hirurogeita hamaseian jaio nintzen, Donostiako Informatika Fakultatea bezalaxe. Elkar ezagutu ordea, 18 urterekin egin genuen. Biok aldaketa handia jasango genuen urte horretan, heldutasunera iritsitakoan. Ni, Nafarroako herri batetik Gipuzkoako hiriburura mugitu nintzen, Ingeniaritza Informatikoa ikastera. Fakultatean ikasketen aldaketa zegoen, Informatika lizentziatura, urte horretan bihurtu zen Ingeniaritza.

Karrera amaitu eta gutxira, fakultatean bertan hasi nintzen irakasle eta ikertzaile lanetan. Gure ikasle garaian ez bezala, geletan apenas zegoen neskarik. Horrek beste irakasle batzuen arreta ere erakarri zuen. Izen aldaketa izan al da erruduna? Bada, datuak bagenituenenez, datu horiek aztertzen hasi ginen eta ikusi genuen, izenak lagundu ez bazuen ere, Informatika ikasten zuen emakumeen kopurua lehendik hasia zela txikitzen eta munduko beste toki askotan ere gauza bera gertatzen ari zela. Kezka nahiko orokortua zen.

Hasi ginen bada, datu horiek erakusten, arazoa gizarteratzen, saiatzen neskak Informatika ikastera animatzen... Zergatik uste dugu ordea, garrantzitsua dela Informatikan emakume gehiago egotea? Bada, datuen tratamenduan lor daitezkeen soluzioak ez direlako bakarrak eta soluzio horien bilaketan dauden taldeak zenbat eta askotarikoagoak izan, orduan eta soluzio zabala-goak eta egokiagoak topatuko direlako. Beraz, ez da soilik genero bitar baten ikuspuntutik begiratu behar den arazo bat, baizik eta erabateko aniztasunetik begiratu behar dena. Baina, erabateko aniztasunera iristeko urrats bat litzateke kopurutan gehiengoa duten bi generoen arteko parekidetasuna lortzea.

Neska gazteen kritika jaso izan dute horrelako mugimenduek. Zergatik saiatzen ote dira feministak besteei esaten zer-nolako ikasketak egin behar dituzten? Nork bere gustuak ezagutzen ditu eta utzi bakean erabakitzen.

Gertu galdetu didate ere, ea neskak matrikulatzera gerturatzen direnean uxatzen dituen frankotiratzaile bat dagoen fakultate sarreran.

«Baina, erabateko aniztasunera iristeko urrats bat litzateke kopurutan gehiengoa duten bi generoen arteko parekidetasuna lortzea»

Ez, gaur egun, gure gizartean ez dago ez derrigortasunik ez debekurik norbanakoen ikasketen aukera egite-rakoan, baina erabat librea al da erabaki hori? Hala baltz, zerk eragin du neska eta mutilen gustuen horrenbesteko aldaketa? Bere garaian Ingeniaritza ikasketak egin ahal izateko horrenbeste borroka egin zuten emakumeak derrigorrez ari ziren? Gizonak gerran zeudenean konputagailuak programatzen ikasi zuten emakume haiek derrigorrez ari ziren? Emazteak etxeko lanetan zeuden bitartean dantza taldeak osatu zituzten gizon haiek derrigorrez ari ziren eta horregatik da horren zaila gaur egun dantzan aritu nahi duten gizonak topatzea? Ba al dago gustu haiek berreskuratzea edo erantzuna da egon badagoela genero arrakala eragiten duen presio soziala?



«Beste esperientzia berri bat bizitzen ari naiz arbitro izatearekin»

NAROA GARAIALDE
FUTBOL ARBITROA

Beste mundu bat ireki zaio Naroa Garaialderi, futboleko jokatzetik arbitro izatera pasatzerakoan. Hasiera batean emakume izateagatik ezberdin begiratzen ziotela dio, baina orain ez du hori sentitzen.

Imanol García Landa

Seigarren denboraldia du Naroa Garaialdek (Tolosa, 2001) futboleko arbitro moduan. Emakumezkoiei, batez ere futboleko jokatzen dutenei, arbitro izateko deialdia egiten die: «Futboleko hasi ziren bezala, saiatzeko arbitro izaten».

Noiztik duzu lotura futbolarekin?

10 urte ingururekin hasiko nintzen futboleko jokat-

zen, eta orain 22 urterekin futbolaren beste alor bat deskubritu dut eta arbitro lanean nabil.

Noiz erabaki zenuen arbitro edo epaile izatea?

16 urte nituenean Tolosa CF-n jokatzen nuen, eta nire atezainaren entrenatzailea arbitroa ere bazen, eta galdetu zidan ea zergatik ez nuen izena ematen, aukera polit bat izan zitekeela. Ez nuen gaizki ikusi eta

izena ematea erabaki nuen. Federaziora joan nintzen, eman zidaten liburuxka bat ikasten hasteko, azterketa bat egin nuen eta gaur egun arte.

Eta 16 urterekin dagoeneko arbitro, beraz?

Oker ez banago, 12 urterekin hastea daukazu arbitratzen kategoria baxuetan, alebinetan eta infantil mailan. Ni oso gaztea nintzen, eta hasieran ni baino pixka bat gazteagoak arbitratzen nituen, baina gero iritsi zen momentua ni baino zaharragoak arbitratzen nirela, eta hori beste mundu bat zen.

Zer egin behar da epaile izateko?

Orain ikastaro batzuk egin dituzte, hainbat epailerekin, egoera ezberdinetan nola epaitu ikasten joateko. Lehen zena eta orain dena Gipuzkoa mailan behintzat, asko hazi da laguntza horrekin. Denboraldi hasieran proba fisiko batzuk pasa behar ditugu guztiok, horiek gabe ezin dugu arbitratu, eta gero azterketa teoriko bat egiten dugu. Gero, denboraldian zehar federaziora joaten gara eta mintegi batzuk jasotzen ditugu, araudi batzuk errepasatuz, lehen eta bigarren mailan gertatu diren jokaldi batzuk errepasatuz, nola jarri gure gorputza horren aurrean..., eta gero denboraldi amaieran berriz proba fisikoak eta teknikoak egiten ditugu mailaz igotzeko.

Futboleko arauak zehaztuta daude, baina gero interpretazioak egon daitezke.

Azkenean gu gaude futbol zelaian eta segundo batean ikusi eta interpretatu behar duzuna oso azkarra izan behar da. Batzuetan akats batzuk egiten ditugu, baina beste batzuetan jokalarien araudiaren ezjakintasunean, kezka sortzen zaizu eta pentsatzen duzu ez zela zuk arbitratu duzuna; halere, azkenean erabaki horrekin bukaeraraino joan behar zara eta batzuetan ondo aterako zaizu, beste batzuetan gaizki, baina normalean ondo izaten da. Gure mailetan VAR famatu hori ez dugu, beraz, erabakitzen duzunak ez du atzera bueltarik.

Eta zein izan daiteke epaile? Baldintzarik badago?

Sasoian egon behar duzu, baina gero bakoitzak era-

bakitzen du zenbateraino nahi duen bere gorputza prestatu arbitro izateko. Badaude batzuk gutxienekoarekin konformatzen direnak, eta beste batzuk asko entrenatzen dutenak gero ahalik eta urrutien iristeko.

Arbitroek, beraz, zuen entrenamenduak ere egin behar izaten dituzue.

Hasieran, hasten zarenean, nola ez duzun pentsatzen urrutira iritsiko zarenik, ez diozu hainbeste garrantzirik ematen entrenatzeari eta araudia sakon ikasteari. Uzten duzu alde batera, eta astebururo joaten zara arbitratzera, eta horrekin nahikoa dela pentsatzen duzu. Gero, ikusten duzu gustatzen zaizula, eta sasoian egon nahi duzula, eta jokaldietara ondo iritsi nahi duzula; ondo arbitratu nahi duzula eta araudia ondo jakin nahi duzula, eta astean zehar lan estra bat egiten duzu, zure gorputza entrenatzeko eta araudia ikasteko. Guk astebururo bi partida arbitratzen ditugu, eta batzuetan egun berean tokatzen dira. Beraz, batetik bestera errekuaratzeko, prestatuta egon behar zara.

Aurten seigarren denboraldia duzu epaile moduan.

Zer mailatan aritzen zara?

Gizonezkoen lehen erregional mailan nabil arbitratzen. Momentuz oso gustura; igoko nintzateke, baina nabaritu dut gehiago gustatzen zaidala marrazain bezala aritzea, eta agian igotzearekin batera, beste partida batzuk arbitratu ahal izateko aukerak murriztuko lirateke. Emakumezkoetan ohorezko erregional mailan aritzen naiz, Gipuzkoako maila altuenean.

Marrazain zein mailatan aritzen zara?

Gizonezkoetan Gipuzkoan dauden beste bi maila altuenean, eta emakumezkoetan hirugarren eta bigarren mailan.

Zer ezberdintasun du marrazain aritzeak?

Beste bi pertsonekin zoaz eta belarriko entzungailua erabiltzen dugu komunikatzeko. Aukera ematen dizu bai Gipuzkoatik baita Euskaditik gehiago mugitzeko ere. Horrek beste xarma bat du, ez zaudelako hemen

inguruan arbitratzen: urrutira zoaz, jende gehiago ezagutzen duzu, beste talde batzuk arbitratzen dituzu, azkenean beste esperientzia batzuk dira.

Nola igo daiteke kategoriaz epaile moduan?

Bi proba pasa behar dituzu, fisikoa zein tekniko. Euskaditik bidaltzen dituzte marrazain bat eta arbitro bat Madrilera, eta han beste erkidegokoekin batera proba batzuk pasatzen dira. Eta horietatik bi bakarrik igotzen dira. Oso zaila da igotzea.

Zure asmoa da mailaz igotzea?

Horretarako prestatzen ari naiz, baina gero ez dakit zer gertatuko den. Aurten saiatu nahiko nuke bigarren maila horretara igotzea marrazain bezala. Aukera badago, baina gero Madrilen pertsona asko elkartzeko dira, eta horietatik bi soilik aukeratzea zaila da.

Eta epaile bezala?

Igotzen banaiz ez dago gaizki, denboraldian zehar lan ona egin dudana seinalea da. Bertan geratzen banaiz ez dut gaizki ikusten.

Asteburuak, beraz, lotuta dituzu.

Sakrifizioa bada, baina gustatzen bazaizu, ondo pasatzen duzu. Esmatzen zara eta goizean partidarik ez baduzu, lasai hartzen duzu. Gero arratsaldean partidara zoaz, eta ondoren lagunekin afaltzera joan zaitetzeko eta parranda egiteko aukera ere izan dezakezu hurrengo goizean ez baduzu partidarik. Exijentea da,



baina uste dut moldatzeko aukera izaten duzula. Jai eskatzeko aukera duzu zerbait baduzu. Azkenean, ohitu naiz.

Ez da zure lan nagusia, ezta?

Ez, nik orain egiten dudana nire kapritxoak ordaintzeko balio dit. Hortaz ezin naiz momentuz bizi, baina diru hori ez dago gaizki, oportetara joateko, edo zerbait erosi nahi badut, diru estra bat da.

Zure ofizio bihurtu nahiko zenuke?

Denboraz ondo nabil; oraindik 22 urte ditut eta igotzen banaiz ondo, eta ez banaiz iristen lehen maila horretara, behintzat, saiakera hor gertatuko da; beste esperientzia berri bat bizitzen ari naiz arbitro izatearekin eta gustatzen ari zait momentuz.


ATARIAn jarrita Gojerri
eta Urola Kostako
Hitza egunkarietan toan

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Txikia: 130€ • Atarikideentzat: 65€
Handia: 180€ • Atarikideentzat: 90€
Eskertza: 80€ • Atarikideentzat: 40€

Eskelak • ataria@ataria.eus • Tel: 943 65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu. Ostegunetan 11:00ak arte hartzen ditugu.



Gipuzkoako Futbol Federazioa kanpaina bat egiten ari da, emakume gehiagok izena emateko arbitro bezala.

Hamabi emakume gaude arbitratzen, eta ni hasi nintzenean hamabi geunden. Futbolari emakumezko gehiago dago, baina arbitro emakume kopuruak berdin jarraitzen du. Saiatzen ari gara emakumezko gehiago arbitro izaten. Zerbait berria da, polita da, pixka bat arraroa izan daiteke hasieran, baina probatzeagatik ez da ezer gertatzen. Futbolean jokatzeko hasi diren bezala, zergatik ez arbitratzen?

Jokalaria izatea baino gehiago kostatzen da epaile izatea?

Askotan izan daiteke gurasoek edo besteek zer esango dutenaren beldurra dugula. Gurasoek ez dute agian ondo ikusten arbitro izatea: arbitroa txarra denaren ikuspegi hori dago, futbol zelaira joan eta iraindu egingo zaituztela... Baina hori ez da horrela; ehun partidetatik behin gertatuko zaizu. Lan segurua da, eta uste baduzu irabazi baino gehiago galduko duzula, ez da horrela, kontrakoa da. Lan sakrifikatua izan daitekeela? Beno, bai, baina asteburuan partida bat edo bi izango duzu, eta gainera bateratu dezakezu futbolean jokatzearekin. Hasieran futbolaria nintzela hasi nintzen arbitro bezala. Gero utzi

«Nabaritu dut gurasoek gehiago kritikatzeko dutela arbitroa neska baldin bada»

egin nuen jokatzeari; batzuetan, faltan botatzen dut, baina arbitro izateak beste mundu bat ireki dit.

Nola animatuko zenuke emakume bat arbitro izatera?

Lehenik esango nioke saiatzeko. Futbolean hasi zen bezala, saiatzeko arbitro izaten. Ez bazaio gustatzen, behintzat probatu du, eta arbitro izatearen ikuspuntua bizitu du. Bigarrenik, kezka badu bakarrik egongo delakoan, ez kezkatzeko, federazioan lagunduko dion jende asko dago.

Ezberdintasunik nabaritzen duzu epaile izaterakoan, emakumezkoa ala gizonezkoa izan?

Hasieran bai nabaritzen nuela, adibidez futbol zelai batera iritsi eta jokalariren batek esatea: «Arraioa! Arbitroa emakumea da». Baina nik uste dut dagoneko gaingitu dela. Nabaritu dut gurasoek gehiago kritikatzeko dutela arbitroa neska baldin bada. Ez partida guztietan, baina batzuetan bai.

Zaleek protesta erabili ohi dute epailea urduri jartzeko. Nola egiten diozu aurre horri?

Nik erraza daukat. Ikusten badut hankaz gora jartzen ari dela, joaten naiz ordezkariarena, eta ohartarazten dut: «Edo isiltzen dira edo partida bukatu egiten da». Hori muturreko egoeretara iritsiz gero.

Eraso matxistarik jasan duzu?

Gipuzkoan gaudenok ezetz esango nuke. Eta esker-rak, bestela futbol zelaira itzuliko ginatke berriro gertatuko ote zaigunaren beldurrez. Ez dugu merezi horrelako ezer jasotzea.

Zer da epaile izatearen alde txarrena?

Asteburuan duzun sakrifizio hori, eta prest egotea asteburu guztietan arbitratu ahal izateko.

Eta alde onena?

Ezagutu ditudan pertsona guztiak ezagutu ahal izatea, tartean erreferente izan direnak. Marta Frias lehen mailan aritu zen, nazioarteko arbitroa izan zen, eta asko gustatzen zait nola arbitratzen zuen; aukera izan nuen berari elkarrizketa bat egiteko, eta oso jatorra izan zen nirekin.



MARTXOAK 8

19:00 MANIFESTAZIOA

Zizurkilgo Joxe Arregi plazatik
Villabonako Erreboteko plazara

MARTXOAK 22

18:00 "Arrazistak al gara?"

Txoko Morean (Lurgatz)

**AIZTONDOKO
MUGIMENDU FEMINISTA**

 **AMASA-VILLABONA**
Villabonako Udala



ATARIK KUDEATZAILEA BEHAR DU

FUNTZIO NAGUSIAK

- Proiektuaren jarraipen ekonomikoa egitea eta bideragarritasuna ziurtatzea.
- Plangintzak garatzea, helburuak finkatzea eta exekuzioa koordinatzea.
- Lantaldea koordinatzea eta antolatzea.
- Kanpo harremanak egitea eta mantentzea.

ESKATZEN DA

- Kudeaketa, administrazio edo ekonomia arloko ikasketak eta ezagutzak izatea.
- Kudeaketa lanetan esperientzia izatea kontuan hartuko da.
- Bestelako ikasketak eta esperientziak baloratuko dira: marketinga, komunikazioa...
- Izaera dinamikoa eta harremanetarako, antolaketarako eta lidergorako gaitasuna izatea.
- Tolosaldean bizitzea edo eskualdea ondo ezagutzea.
- Gutzienez euskara C1 maila.

ESKAITZEN DA

- Lanaldi osorako kontratua.
- Maiatzean lanean hastea.
- Lantokia Tolosan.

Interesa baldin baduzu,
bidali curriculum
tkt@ataria.eus
posta elektronikora 2024ko
martxoaren 21a baino lehen.

ANDRAGORA

Tolosaldeko Emakumeen Etxea



Espazio atseginak:
egongela-liburutegia,
aretoa, erabilera
anitzeko gelak...



Ekintza aniztasuna:
topaketak, ikastaroak,
kirol-jarduerak, ludiko
eta kulturalak, kaleko
ekintza zuzenak...



Parte hartze irekia:
16 urtetik gorako
emakumeentzako
espazio irekia da.



Zerbitzuak:
Arreta, aholkularitza
juridiko eta psikologikoa,
Tolosako Udaleko
Berdintasun Saila.

Astelehenetik ostiralera 10:00-14:00 / 16:00-19:00

Emakumeon Plaza, 1 20400 Tolosa

943 00 89 67

andradora@andradora.eus

MARTXOAK 8 / EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA



ZUETAZ HARRO

**Ahalduntutako emakume
bakoitzaren atzean ahalduntzera
bultzatu duten beste emakume
batzuk egon dira.**





**«Nire ustez denok
gara artistak, kontua
da zein intentziorekin
egiten duzun»**



NISA GOIBURU

ARTISTA

Aitzindarietako bat izan zen Goiburu hainbat artetako elementuak obra bakarrean uztartzen; bere lanak nazioartean erakutsi izan dituzte, besteak beste, Ameriketako Estatu Batuetan eta Japonian

Aitor Arroyo Askarai

Hemezortzi urte inguru zituela heldu zien pintzelei lehenengoz Nisa Goiburu (Ordizia, 1946) artistak. Gaur taldearen inguruan egin zuen lehen erakusketa hogeitaz inguru zituela, eta ordutik mende erdi baino gehiagoko ibilbidea ondu du. Aitzindarietako izan zen performanceak egiten, hots, hainbat arte diziplina obra berean uztartzen. Sortzez ordiziarra, urteak daramatza Tolosan bizitzen eta lan egiten. Gazte zela New Yorkera (Ameriketako Estatu

Batuak) joan zen sentitzen zuelako hemen «ez zuela ezer handirik egiteko» eta ez ziotela «jaramon handirik» egiten.

Nola eman zenituen lehen pausoak margolaritzan?

Begira, garai hartan kolegio Las Carmelitas-era joaten ginen eta ikasteko ez nuen erraztasun handirik, baina bai margotzeko. Mojek deitu zieten nire gurasoei; nire ama joan zen eta hari esan zioten ikasteko erraztasun handirik ez nuela, baina aise egiten nitue-



la marrazkiak-eta. Hori horrela, gurasoek segituan bidali ninduten Donostiara, akademia batera. Hamazazpi-hemezortzi urterekin edo hasi nintzen eta harez geroztik ez naiz geratu.

Izen handiko hainbat irakasle izan zenituen.

Aurreraxeago egon nintzen Jose Campsekin. Ohartu ginen batzuk gehiagorako gogoa genuela, eta joan ginen [Ascensio] Martiarenarengana. Bada, hain zuzen, guri baiezkoa eman eta gutxira ondoezik jarri zen eta ez zuen klase gehiagorik eman; hori gabe geratu ginen. Gerora, Julian Ugarte berria zegoen eta harekin jarraitu genuen. Ondoren joan nintzen Parisera.

Ordiziatik Parisera, ez da aldaketa makala.

Pentsa, Ordiziatik atera eta Parisera iritsi... Mundu batetik bestera joatea bezala da. Gelditu gabe ibili nintzen gauzak egiten, ikusten... Orduan hasi nintzen ohartzen dantza gustatzen zitzaidala, musika, literatura... Diziiplina guztiak.

Egiten ez nintzen aritu, ikusten aritu nintzen. Niretzat unibertsitate bat bezala izan zen. Joaten nintzen noizean behin akademia batera, zeina libre egoten

zen. Geroago ikasleen egoitza batean egon nintzen eta zerbait margotu nuen, baina gauza handirik ez. Gehiago izan zen jakin-mina garatzea ikasteko eta gauzak ikusteko.

Nola moldatzen zara gainerako arte diziplinetan?

Dantza, esaterako, neronek ez dut egin, baina nire performanceetan sartu izan dut. Nik ez nuen egiten, baina jendea kontratatzen nuen obraren zati hori egin zezan. Sentsibiltate hori badut barruan, eta ikusten nuen guztiak interesa pizten zidan.

Ibilbide oparoa ondu duzu. Lana aitortu dizutela sentitzen duzu?

Bueno, hori oso zaila da esaten. New Yorkera joan nintzen ikusten nuelako hemen inguruan ez nuela ezer handirik egiteko; ez zidatela jaramon handirik egiten. Benetan margotzen hasi nintzenean iritsi zen momentu bat non ohartu nintzen lan asko egiten nuela.

Izugarrizko lana da hau, eta nire artea ez bada onartzen hemen zer egiten dut nik hemen. Gainera hiru alaba nituen. Eta azkenean erabaki nuen New Yorkera joatea. Ingelesa zekien lagun batekin

joan nintzen, nik ez bainekien. Dosierra besapean hartuta hantxe joan ginen.

Gogoan dituzu lehen momentuak?

Ez genuen ezer ezagutzen; ez genekien nora jo. Halako batean, 5th Avenue delakoan topatu genuen galeria bat, txiki-txikia. Bertan probatzea erabaki genuen, eskailera batzuk jaitsi eta pabiloi handi bat zela ohartu ginen. Ea aztertu ote zuen galdetu genion eta ordubetez aritu zen txostena begiratzen.

Halako batean amaitu zuen, eta esan zigun: «Pintura honek merezi du, baina hau ez da zure tokia. Chelsea galeriara joan behar duzu, arte garaikidera». Bertara jotzea erabaki genuen. Bidean beste galeria batzuetan sartzen ginen eta guztiek begiratzen zuten. Guztiek ematen ziguten gomendioaren bat «joan harantz» edo «galdetu hemen»...

Eta azkenean iritsi zineten helburura.

Halako batean iritsi ginen Chelsea galerietara. Han fabrika zaharrak zituzten, zeinak ordurako ez zeuden martxan eta ez ziren erabiltzen. Bada, horietan espazioak sortu zituzten hainbat gai lantzeko: literatura, zinema, arte galeriak... Inprentaren bat ere bazegoen. Horietako batean sartu eta hark ere goitik behera begiratu zuen. Bukatutakoan bi argazki posta elektronikoz bidaltzeko eskatu zidan, nire kontaktua eta izena gordetzeko. Handik hamabost egunera idatzi zidan berriz gustatu zitzaioela eta ea erakusketa jarri nahi ote nuen.

Paper batean pasa zizkidan datak, lekua eta baldintza guztiak; eta hurrengo urterako eman zidan data. Oso esfortzu handia da, baina han joan nintzen eta ondo joan zen. Gainera, behin hori eginda, beste bultzada bat sentitzen duzu aurrera egiteko.

Artelan asko egin dituzu. Bat aukeratzetik izango zenuke?

Oso zaila da. Bakarra ezingo nuke aukeratu. Badago bat berezia

«Ez da nolanahiko erronka teknika berriak ikastea, eta askotan egin behar izaten da»

«Obra bukatuta ikusten denean inork ez du pentsatzen atzean zein lan egin behar izaten diren»

dena, baina... Hiruzpalau edo bost badira, gutxienez, zeinak esanahi bereziren bat duten. Gehienbat izan duten lanagatik. Zailtasunak izan daitezke koloreengatik, teknikagatik... Nik geometria landu dut asko eta ia autodidakta izan naiz. Ez da nolanahiko erronka

teknika berriak ikastea, eta askotan egin behar izaten da. Obra bukatuta ikusten denean inork ez du pentsatzen atzean zein lan egin behar izaten diren.

Hainbat sari ere jaso dituzu. Zein esanahi dute zuretzat?

Gaztetan jaso nituen hainbat. Ilusio handia sortzen du sariak jasotzeak; hori zalantzarik gabe. Gauza horiek badute esanahi bat: aitorpen bat dira, azken finean. New Yorkeko galerietan hautatu izana, edo Japoniara joateko nola aukeratu ninduten... Horrek esanahi handia du niretzat.

Gazteekin ere egin izan duzu lan.

Gehiena egin dudana izan da hemen antolatu nuenean eskulturaren sinposioa. Ikastetxe guztietako ikasleak etorri ziren eta hori asko gustatzen zait. Gazte batzuk oraindik oso kontserbadoreak izaten jarraitzen dute, beste batzuk ez... Gainera, zerbaitek motibatzen dituenean interes handia jartzen dute, eta hori asko gustatzen zait. Nirekin egiten dutena ez da izaten bata kopia edo bestea... Beti gauza berriak sartzen ahalegindu naiz, eta ikusteko aukera izan dut hori jendeak atsegin duela.

Horrez gain, klaseak ere ematen zenituen, ezta?

Ikastolan eta CITen [Tolosako Ekinbide Etxea (TEE)]

eman nituen. Ikastolan ez nuen aukerarik asko esperimentatzeko. TEEn eman nuenean, berriz, orain ikastolan egiten diren gauzak material askorekin-eta, aurretik, ni irakasten hasia nintzen; baina in-tuizioz. Ez nuen prestakuntzarik, baina nire kasa sortzen nuen hori. Gustatzen zait abanikoa zabal-

tzea eta ikustea zenbat aukera dauden bizitzan gauzak egiteko; eta irakasten badizute, beti errazagoa izango da. Beti pentsatu izan dut Arte Ederrak ikasi duen jendeak eskailerak bosnaka igotzen dituela; guk, berriz, banaka igotzen genituen.

Zein artistak eragin dute zure estiloan?

Neure buruari ez diot utzi eragin handirik jasotzen. Denboran zehar aldatzen joaten zara zein artista gustatzen zaizkizun, baina beti gustatu izan zait pixka bat alde egitea horretatik. Nik nirea egin behar nuen.

Hori oso ondo islatzen du, adibidez, Kilometroetako anagrama egitea enkargatu zidatenekoak. Niretzat zerbait berria zen eta hasi nintzen probak egiten -zirriborro pila bat egin behar baitira, ez da lehenengotik ateratzen den zerbait-. Bada, denak ateratzen zitzaizkidan Oteizak eta Txillidak egiten zituzten ildo berekoak. Nik ezagutu nituenean Barandiaran galerian, Gaur taldean, ateratzen zitzaidan estilo berekoa. Nahigabe. Lan asko egin behar izan nuen hori kentzeko eta nirea egiteko. Bestela, segituan esango zuket «kopiatu egin du». Ez da, ordea, kopiatzea. Gaur berekoa zara eta hori atera egiten da, eragin hori.

Azkenean lortu nuen, eta aurkeztu zutenean jendeak oso gogo onez hartu omen zuen.

Nortzuk dira zure erreferenteak?

Klasiko guztiak: Goya, Velazquez.. Italiarrak Leonardo Da Vinci, Botticelli, Miguel Angel, Tiziano... Eta Picasso ere asko gustatu izan zait beti.

Denetatik ateratzen duzu zerbait, baita berrietatik ere. Francis Bacon asko gustatzen zait, nik bezala asko erabiltzen du geometria; organikoa eta inorganikoaren arteko elkartzea; naturarena, geometriarekin.

Gaur taldearen parte izan zinen. Zenbait euskal artista ezagutu zenituen, ezta?

Oteiza beranduago ezagutu nuen, [Rafael Ruiz] Balerdi ere ezagutzen nuen -erdi familiakoa zen-eta-. Oso gazteak ginen. Pintura eskolara joaten ginen eta zerbait antolatzen bazuen Gaur taldeak, han joaten ginen, beti. Gazte bakarrak ginen. Guk hamazazpi



bat urte izango genituen, eta gainerakoek ordurako 30; alde handia dago.

Gogoan dut hizkuntzari buruzko hitzaldi bat; eta gerora konturatu naiz nire piezetan eragina izan duela hark. Ez nuen uste, entzun besterik ez bainuen egin, baina nire piezetan eragina izan duela ikusi nuenean ohartu nintzen benetan barruraino sartu zitzaidala. Adibidez, Madrilén Ateneoan egin nuen performance bat, eta hizkuntzaren inguruan zen. Egin nuenean ez nintzen konturatu, baina errepasa-



«Sentsibilitate hori badut barruan, eta ikusten nuen guztiak interesa pizten zidan»

«Beti pentsatu izan dut Arte Ederrak ikasi duen jendeak eskailerak bosnaka igotzen dituela; guk, berriz, banaka igotzen genituen»

tzen hasten zarenean ikusten duzu haren eragina nabaritzen dela hor.

Txillidarekin ere ezagutu zenuen.

Txillidarekin Japonian egin nuen topo. Hori polita izan zen. Bartzelonara joan nintzen, han ezagutu nuen pertsona bat eta nire lanak bertara eramatea nahi zuen.

Hark ez zuen aurrera egin, baina azkenean beste elkarrizketa bat ere lotu zidaten. Bigarren hark argazkiak ikusi zituen eta hiru egunen buruan deitu zi-

daten esanez Japoniako galeria bateko arduraduna azaldu zela, eta nire lanak aukeratu zituela Tokioko Nazioarteko Artearen lehen azokara joateko. Beraz, beste esfortzu bat egin –halako gauzak ez direlako edonoiz etortzen– eta han joan nintzen. Bada, Japonian, kasualitatez, hotel berean elkartu ginen Txillida eta biak. Gerora azokan ere elkartu ginen.

Oteizarekin, berriz, harreman ona zenuen.

Jorge Oteizarekin oso ona. Arratsaldeak pasatzen genituen arteaz hitz egiten, elkarri gauzak erakus-

ten... Niretzat oso pertsona inportantea izan da.

Artea ikusteko modu izugarri bat zuen. Koadroak aztertzen zituen; eta nola, gainera!

Antropologo bat ere ezagutu nuen, Jose Martin Apalategi; eta harekin ere oso harreman ona nuen. Donostian arte erakusketa bat egin nuen eta berak bilatu ninduen: ezagutu egin nahi ninduen, eta nola margotzen nuen jakin. Berak ere asko lagundu ninduen.

Gehienbat gizonez osatutako ingurua zen. Nola sentitzen zinen?

Donostiakoa bazinen eta Arte Ederrak ikasi baze-nuen, ondo. Bestela, ez zintuzten onartzen. Esan be-har dut, baita ere, asko ez nintzela joaten gainerako-engan. Beti hemen ibiltzen nintzen, lanean. Ezagutu dut jendea, jakina. Baina ez nuen ohiturarik haiek el-kartzen ziren bezala elkartzeko.

Emakume izateari dagokionez, nik uste eragin zue-la aitortza hori ez jasotzen. Hein handi batean horre-gatik joan nintzen New Yorkera, ikusten nuelako he-men ez nuela ezer egiterik, ez zitzaiola baliorik ema-ten nire lanari. Gertatu izan zait jendea gonbidatzea estudioa ikustera, eta etorri ere ez egitea; eta hori ja-kinda obrek ez dutela zerikusirik argazkitik aurrez au-rre ikustera. Kanpoan, berriz, askoz errazagoa izan da. Toki askotan egin ditut erakusketak.

Arte diziplina ezberdinak uztartzen dituzu obra be-rean. Noiz hasi zinen horretan?

Lehen performancea 1999. urtean egin nuen. Hor bateratu nituen pintura, eskultura, instalazioak... Lan hura egiteko musika egin zuen Gonzalez Acilu kon-posatzaileak, zeinak Espainiako Saria jaso duen, bi aldiz, musika garaikidean. Horiez gain sari asko jaso ditu, eta ezagutzen nuen Tolo-sako Abesbatzen Topaketara etor-tzen zelako. Proiektua aurkeztu nionean berehala esan zuen baietz, baina proiektua bera aurre-

«Neure buruari ez diot utzi eragin handirik jasotzen»

ra eramatea asko kosta zitzai-dan.

Abesteko sopranoekin egiten dut lan. Hori da nire ahotsa, nire sentimenduak horrek islatzen

ditu.

Etorri zen abeslaria soprano garaikidea zen, eta ez du inongo zerikusirik soprano klasikoarekin. Dantza-ria, berriz, Espainiako Dantza Konpainiatik etorri zen. Denak ziren oso onak, eta oso gauza ezberdinak egin zituzten, baina dena erabat lotuta erakusketarekin. Harrezkero gauza ezberdinak egiten aritu naiz. Jae-nen, esaterako, unibertsitatean gonbidatu ninduten performancea egitera.

Performanceak egiten aitzindarietako bat izan zara.

Hasieran ez zen erraza izan. Askok kostatu zen hemen horrek aurrera egitea, baina nik oso argi nuen zer nahi nuen. Gai bat landu nahi nuen, eta argi nuen ar-tea diziplina ezberdinetatik landu nahi nuela. Esate baterako, sopranoak poesia ere erreztatzen zuen, dantzariak, berriz, eskultura eta koadroetako keinuak imitatzen zituen... Harrigarria eta berria zen hori he-men. Esther Ferrer ere bazegoen, baina ez zen oso ezaguna.

Jaenen egin nuen, eta New Yorken Amaia Arberas sopranoarekin egin nuen. Berriki Donostian ere egin dut halako zerbait, baina txiki-txikia.

Lantzen dituzun gaietako batzuk dira emakumea, natura eta izatearen esentzia. Nondik datorkizu in-teresa?

Izatearen esentzia da guztiaren gakoa. Niretzat denak bat gara. Amalurra gara. Beti landu dugu lurra. Historiaurretik. Oso integratuta eta oso lotuta gaude lurrari. Feminitate hori hor dago. Eta ez da gustatu egi-ten zaidala. Etorri egiten zait, bere kasa. Gaia bera etortzen da, bila joan gabe. Eta lan asko egin dut emakumeekin. Proiektu bat egin nuen Madrilan, perfor-mance bat: *Memoriaren jantziak*

«Joan nintzen New Yorkera, hemen ez zitzaiolako baliorik ematen nire lanari»



[*Las prendas de la memoria*]. Liburu bat ere prestatu nuen jainkosekin, baina hura ez zen atera.

Zer da artea zuretzat?

Bizitza; niretzat bizitza da. Hemen lanean zaudenean munduak existitzeari uzten dio. Nire ustez denok gara artistak, kontua da zein intentziorekin egiten duzun. Bakoitzak du bere dohain berezia; eta denok ez dugu balio gauza guztietarako. Baina bakoitzak du berea. Orduan, pentsatzen dut dena izan daitekeela arte. Aldatzen dena horrekiko sentimendua da.

Arteak funtziorik izan beharko luke?

Ni konturatu naiz erakusketak egiten ditudanean jendeak esaten duela lasaitasuna helarazten diela. Funtzio polit bat izan daiteke. Naturak erakartzen gaitu, eta hor bada zerbait. Mendira joaten denak ondo ulertuko du hori: bihotza zabaldu egiten zaizu, eta beteta sentitzen zara. Hori niretzat esentzia da. Koadroekin ere hori lortzen baduzu, sekulakoa izango litzateke.

Orain zein proiektu dituzu esku artean?

Ez daukat gauza handirik esku artean. Beti nabil zerbaitekin, baina orokorrean gauza txikiak. Duela bi urte lau erakusketa egin nituen urtebetean; gauza ezberdinekin, gainera. Hori ondo dago, baina nekatuta bukatu nuen. Erakusketak antolatzeak lan asko du, eta indar asko eskatzen du. Orain parte hartu behar dut emakumeek egiten duten erakusketa batean: *EmpoderArte*. Joan den urtean hemen egin zen, Tolosan, eta aurrean Andoainen izango da.

Bestelako lan txikiak ere egiten ditut. Bitxikeria bat aipatzeagatik: rol joko baterako irudi bat eskatu zidaten. Asko gustatu zitzaidan ideia, ezagutzen ez ninduen norbaitek eskatu zidan lana; gaztea zen, gainera eta zerbait berria da niretzat. Horrez gain, *Gente que hace cosas* proiektuan ere hartuko dut parte.

Artista batek ba al du erretiro adinik?

Jarraitu egiten du, beti. Margotzea atsegin baduzu, eta jarraitzeko aukera baduzu; ez da bukatzen. Atera egin behar da, gainera. Jatea bezala da niretzat, baina arimari jaten ematea.

Mozorro Festa

ataria argazki lehiaketa

Epaimahaiaren saria



• Nere Jauregi

Eta nik, usoa nuen maite...



nekatur

Euskadiko landa ostatuen elkartea
Asociación de alojamientos rurales de Euskadi
www.nekatur.net

NEKA opari TXEKEa

Nekaturreko edozein ostatutan
erabiltzeko 90 euroko opari txekia

Nekatur.net • 943 32 70 90

ataria.eus-eko erabiltzaileen saria



• Mertxe Adurriaga *Gu garbitzera gatzoz*

ALONDEGIA jatetxean
4 pertsonarentzat
otordua

Alondegia.com
San Joan plaza, 2
Tolosa



atarikide saria

• Jon
Ipentza
'Karretilla'
zainzuriak



ERRIGORako produktuez osaturiko kaxa



errigora.eus





Pili Aguado
Artista

GURE IRAULTZA

«Eta bada garaia, / erreka oso bat edateko.
Kantatu, maitatu eta dantza / ezin bada, ez da gure iraultza!
Berreskuratzeke dugunagatik, / topa egiteko ez bada botila ardorik.
Ez badu uzten kantu bat ezpainetan, / inoiz ez dezagun sekula ez esan.
Ez badugu bihotzetan odolik, / Cabernet Sauvignon bat bezain gorri.
Ez badute mila eztarrik kantatzen, / denak batera eztandan lehertzen»

Vinu, cantares y amor. Nacho Vegas (Anairen bertsioa).

AGENDA

OSTIRALA MARTXOAK 8

ALBIZTUR

M8

Estereotipoak apurtzen.
Maskulinitate eta feminitate
ezberdinak, Lipduba herritarrekin.
Albztuko eskolak antolatuta.

ALEGIA

BERTSO SAIOA

17:00. *Gelatik plazara* bertso
saioa. Kultur etxean.

M8

18:30. Manifestazioa *Askatasuna
borrokatuz* lemapean, plazatik.

19:30. *Ainarak* dokumentalaren
proiektzioa.

Ondoren. Anne Etchegoyen
protagonistaren kontzertu
laburra, zinean.

ALTZO

M8

18:00. Elkarretaratzea, plazan.

AMEZKETA

M8

17:00-19:30. Ipuin kontaketa eta
trentza tailerra. Gipuzkoako
emakume nigeriarren elkarteko
kideen eskutik, kultur etxean.

19:30. Elkarretaratzea, plazan.

21:00. Emakumeen afaria, Zazpi-
iturri elkartean.

ANOETA

M8

19:00. *Gure bizitzekin negoziarik
ez!* elkarretaratzea, Anoetako
mugimendu feministak antolatuta.

Ondoren. Emakumeen afaria Kuku
elkartean.

ASTEASU

M8

19:00. Ztandap antzezlanak,
udaletxeko areto nagusian.

Ondoren. Rosko feminista, herriko
tabernetan.

21:00. Afaria Iturriondon.

Ondoren. Bingoa eta gero-gerokoak
goizalderarte.

BIDANIA-GOIAITZ

M8

Goizean. Brotxen tailerra eta kantuak
landuko dituzte Txinkorta eskolan.

18:00. *Beste historia* antzezlanak, Esther
Povedarekin. Toti Martinez de Lezearen
Urak dakarrena liburuan oinarrituta.

19:00. Elkarretaratzea, Bidania-Goiazko
frontoian.

21:00. Afaria, Albizturko ostatuan.

BERASTEGI

M8

19:30. Elkarretaratzea, plazan.

Ondoren. Poteoa herrian zehar.

21:00. Afaria udaletxeko erabilera
anitzeko gelan.

BERROBI

BERTSO AFARI MUSIKATUA

21:00. Afaria eta bertso saio musikatua,
Berrobiko ostatuan. Gai-jartzaile
lanetan Amaia Agirre ariko da. Oihana
Iguaran eta Onintza Enbeita
bertsolariekin. Ixak Arruti
musikariarekin.

ELDUAIN

M8

18:25. Lineako autobusean joango dira
Elduaingo emakumeak Tolosako
manifestaziora.

IBARRA

TAILERRA

09:30. Hirugarren adinekoentzat
marrazketa tailerra. Bizi Nahi elkartean.

IKAZTEGIETA

M8

19:00. Erabilera anitzeko aretoan,
tertulia. Herrian mural bat egiteko
proposamena landuko dute.



Ondoren. Ostatuan afalduko
dute.

IBARRA

M8

Uzturpe Ikastolak eta
Gaztezulok antolatuta.

09:15. Piztu irratia.

10:00-13:00. Barrakoi
pintaketa, GKOREn eskutik.

10:00. DBH3ko ikasleek HH
eta LHkoei ipuin kontaketa.

11:00-13:00. DBH 1-3 M8 oka
jolasa, plazan.

14:30-16:30. LH5-6 M8 oka
jolasa, plazan.

IRURA

M8

09:00. Emakumeen Eguna
Ikastolan. Egunean morez
jantziko dira eta adinaren
araberako lanketak egingo
dituzte. Herri panelak
ezagutzera aterako dira



ikasleak. Photocall-a izango dute, egindako betaurreko moreekin argazkiak aterako dituzte.

18:30. Elkarretaratzea, plazan.

19:00. *Ring* antzezlan, erabilera antzeko gelan.

21:30. Afaria, ostatuan.

LARRAUL

M8

18:00. M8 mobilizazioa bailara mailan. Herriko plazan elkartuko dira elkarrekin Zizurkilera joateko.

21:00. *Quiero ser como Beckham* pelikularen proiektzioa, gune polibalentean.

LIZARTZA

M8

19:00. Herri kontzentrazioa.

Ondoren. Emakumeen afaria, herriko ostatuan.

ORENDAIN

M8

18:00. *80 amandre* ipuin kontaketa. Helduentzako ipuin kontaketa, Dorleta Kortazarren eskutik.

Ondoren. Poteoa.

20:00. Emakumeen afaria, Ostatuan.

TOLOSA

GAZTE TOPAGUNEA

Frida Kahloren puzzlea.

M8

18:30. Mobilizazioa, Itaiak deituta. Trianguloa plaza.

19:00. Manifestazioa. *Feminismoa ardatz, gure bizitzekin negoziarik ez!* Tolosako Asanblada Feministak deituta. Trianguloa plazatik.

AMALUR JARDUNALDIK

19:00. Miriam del Rio. *Dark turismoa, turismo iluna modan dago.*

Gaztelaniaz. Miriam del Rio kultura eta historia gaietan

espezializatutako kazetariak eskainita. Topic-en. **Irakurri elkarizketa 26-29 orrietan.*

ANTZERKIA

20:00. *Almazanean*, Txalo produkzioak taldearen eskutik. David Desola idazle katalanaren komedia garratz eta zorrotzaren euskarazko egokitzea da, Iker Galartzak eta Zuhaitz Gurrutxagak interpretatua. 2003an Machado Anaia Saria jaso zuen jatorrizko antzezlanak. Lan esplotazioari eta kapitalismoari buruzko gogoeta egiten du. Biltegi batean dauden pertsonaia-talde baten arteko elkarrekin eta dinamiketan oinarritzen da. Giza harremanak, pertsonen arteko gatazkak eta elkarrekin lan egitean sortzen diren emozio konplexuak aztertzen ditu lanak. Leidorren.

KONTZERTUA

22:00. Frantziako Shoefiti taldearen kontzertua. 10 euro. Bonberenean.

ZIZURKIL

M8

18:30. Irrikada, Joxe Arregi plazan.

19:00. Zizurkildik Villabonara joango den manifestazioa.

LARUNBATA

MARTXOAK 9

ADUNA

M8

19:30. Elordi aretoan *Pototan* bakarriketa, Mirari Martiarenaren eskutik.

21:00. Afaria Zabala sagardotegian.

Ondoren. DJ Naza.

ALKIZA

M8

18:30. Andragora, Emakumearen Etxearen aurkezpena.

Ondoren. Alkizako emakumeak hitzak eta mintzak (45 minutu).

20:30. Afaria, ostatuan.

Ondoren. Karaokea.

ALTZO

M8

18:30. Batzarremuñon, Mariren alabak antolatuta, zine foruma *Barbie* filmaren proiektzioa eta solasaldia.

21:00. Herriko ostatuan, emakumeen afaria.

OUTLET FESTA

Larunbata eta igandea. Migdalaren outlet festa. Arropa eta osagaiak, taberna eta musika zuzenean. Iriarte baserrian.

AMASA-VILLABONA

DANTZARI EGUNA

11:30. Oinkari dantza eskolaren kalejira, Arroa plazatik.

13:00. Oinkari dantza eskolaren emanaldia, Erreboteko plazan.

BERASTEGI

GAZTE FESTAK

15:00. Mus txapelketa herrikoia.

18:00. Fronteniseko finalak.

18:00. Berastegira egokitutako lilaioa.

ELDUAIN

M8

19:00. *Bonba bat naiz* antzezlan. Eguraldi ona bada pilotalekuan, bestela kultur etxean.

21:00. Emakumeen afaria, Kontzejuan.

IRURA

TXAPELKETA

15:00. Euskal Herriko XV. Mus Txapelketa, herrialdeko finala, pilotalekuan.

LARRAUL

M8

Goizean. Emakumeak mendira! Plazatik atera eta Zelatunera mendi irteera.

Hamaiketako eta buelta.

Gauean. Emakumeen afaria.

LIZARTZA

AHOZ AHO JAIALDIA

18:00. Ahozkotasunaren Gala Nagusia. Helduentzako. Euskaraz eta gaztelaniaz. Udal aretoan.

TOLOSA

IKASTARO TRINKOA

Larunbata eta igandea. *Oihal akrobazia* ikastaro trinkoa. Beatriz Corralen eskutik. Gure Zirkugunean.

BRADERIE

53 saltokik neguko azken maukak aterako dituzte kalera.

10:00-20:00. Dendak kalean.

10:30-14:30 eta 16:30-19:30. Haur txokoa, Trianguloa plazan, 0 eta 5 urte bitarteko haurrentzat.

10:30-14:30 eta 16:30-19:30.

Txu-txu trena, herrian zehar.

16:30. Incansables txaranga.

Ibilbidea: Emeterio Arrese, Oria kalea, Nafarroa etorbidea, Foruen etorbidea, San Frantzisko, Trianguloa, Errementari eta Aroztegieta.

17:30-20:00. Egurrezko jolas tradizionalak, Berdura plazan.

TREBA GAZTEAK

10:00-13:00. 18-30 urte bitarteko gazteei zuzendutako hitzaldia.

Stop antsietatea. Ahalduntze eta emozioen kudeaketa. Badabidebat-en eskutik. Inmakulada ikastetxean.

ELKARTASUN URRATSAK

10:30-12:30. Herrikide ikastetxearen Elkartasun Urratsak. Parte hartzeko dortsala erosi behar da 2 euroan. Itaka-Escolapios fundazioa laguntzeko. San Frantzisko pasealekuan.

KOMITEA

11:00. *Inmobiliaria eta bankuen negozioa.* GSKS antolatuta. Ezpala gaztetxean.

BISITA GIDATUA

Txotxongiloak emakumeetan bisita gidatua izango da. Topic-en.

11:30. Euskaraz.

12:30. Gaztelaniaz.

SAIOA

17:30. Barne bidea, talde txaman esperientzia. Goiztizar, medikuntza emakumea. Amaroizko auzo etxean.

TAILERRA ETA IKUSKIZUNA

17:00. Tailerra.

18:30. Cal Teatre (Katalunia).

Aulki jokoa. 50 minutu. 5 urtetik aurrera. Gaztelaniaz. Topic-en.

KONTZERTUA

22:00. Les Conches Velasques eta Ensaña taldeen kontzertua. 10 euro. Bonberenean.

ZIZURKIL

M8

Emakumeen Eguneko irteera,



Txillida Lekura. Donostiako Eceiza hotelean bazkalduko dute.

TXAPELA EGUNA

XXIX. Txapela Eguna.

Herribizigune elkarteak izango da aurtengo txapelduna.

16:00. Zentroan, txapeldunen mus lehiaketa.

18:00. Intxaur frontoian, Bukalai dantza taldearen emanaldia.

19:00. Ate irekiak

Herribiziguneraren topagunean.

20:30. Plazan, I. Txapel saskiratze lehiaketa (eguraldia lagun ez bada Zimiterioan).

21:00. Txapeldunen afaria Iriarte jatetxean.

Afal ostean. Txapela janztea Herribiziguneri. Amaia Agirre eta Unai Mendizabal bertsolariak.

IGANDEA MARTXOAK 10

ADUNA

KORRIKA

Peto eta arropa salmenta goizean, Zimiterioan, Aiztondo Klasikoa dela eta.

ALEGIA

AUTOBUSA

18:30. Elorri Aldapak Baskonia-Barça partida ikustera joateko autobusa antolatu du.

ALTZO

KORRIKA

12:00. Tolosako Arimaz orkestra, Ion Garmendia Anfurrutia (txistua) eta Sara Liton Castillo (zuzendaria). Andre Mari Jasokundearen elizan.
13:00. Plazan, musika eta hamaiketako.

AMASA-VILLABONA

HAUR ANTZERKIA

17:00. *Loti ederrak* antzezlan, Gurea antzokian.

ASTEASU/ZIZURKIL

LASTERKETA

XX. Aiztondo Klasikoa. Zizurkildik abiatu eta Asteasura iritsiko da lasterketa.

BELAUNTZA

AHOZ AHO JAIALDIA

18:00. Maider Galarza (Euskal Herria) eta Carolina Rueda (Kolonbia). Helduentzako. Euskaraz eta gaztelaniaz. Kultur etxean.

BERASTEGI

M8

18:30. *Magma Mia* bakarriketa Beatriz Egizabalen eskutik, udaletxeko ganbaran.

BERROBI

GURE PLAZATXO

12:00. *Master Chef* taldeko koxinatuz eta bazkaria. DBH 1 eta batxiler bitarteko ikasleei zuzendurik. Herriko plazan.

ELDUAIN

MENDI IBILALDIA

10:00. Mendi ibilaldia (Plaza-Sales-Berrotza plaza).

TOLOSA

GAZTE TOPAGUNEA

Film proiektzioa.

KONTZERTUA

18:00. Jac Blues. 3 tabernan.

ZIZURKIL

AHOZ AHO JAIALDIA

19:00. Marta Saenz de la Calzada (Quebec) eta Iñaki Carretero (Euskal Herria). Helduentzat, euskaraz eta gaztelaniaz. Plazida Otaño liburutegian.

ASTELEHENA

MARTXOAK 11

ANOETA

M8

17:30. *Ihesi* ikuskizuna. 5 euro. Mikelasagastin.

TOLOSA

IKASTAROA

17:30. Tolosa CF-k antolatutako formakuntza. Alex Remiro proiektua. *Gurasotasun positiboa eta ongizate emozionala kirolean*. Kiroldegiko gela pedagogikoan.

MENDI TOUR

19:30. Leidorren. *La Gara*. 2023ko MFko Sail Ofiziala. 15 minutu; *Cafe Americano*. 2023ko MFko Sail Ofiziala. 14 minutu; *Zerbait aldatu da*. 2023ko MFko Sail Ofiziala. 10 minutu; *Light beams for Helena*. 2023ko MFko Sail Ofiziala. 10 minutu; *La ligne de l'Ange*. 2023ko MFko argazkilaritza onena. 42 minutu eta *Highline Nerbioi / Oreka Tolosa*. Mendi Film Bizkaia Ternua Beka 2024, film proiektuaren aurkezpena.

ZIZURKIL

IKASTAROA

11:00. *Intseminazio artifiziala behi aziendetan*. Martxoak 11 eta 14. Fraisoro nekazal eskolan.

EUSKARAREN PLAN

ESTRATEGIKOA

Kultura eta kirol eragileak.

ZINEMA



SALA DE PROFESORES

Larunbata (19:30 eta 22:00);
igandea eta astelehena (19:30).
Amasa-Villabona, Gurea.



BOB MARLEY: ONE LOVE

Larunbata eta
astelehena (19:00).
Tolosa, Leidor.



MADAME WEB

Larunbata (21:30) eta
igandea (19:30).
Tolosa, Leidor.



LA AVENTURA INFINITA

Igandea
(17:00).
Tolosa, Leidor.

ALdea dago!!

Gaixoa gure Maripurtzill! Gaixoa, gainera, zentzu guztietan. Sukarra nahikoa ez, eta amak "mehatxu" egin dio, bere mesedean ari delakoan. Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamaika dira guztira.



Sudokua



Izan ere, zer ematen zaio gaixo dagoenari? Botika, hain zuzen ere, eta gehienetan nazkagarria izaten da. Bete itzazu sudoku honen hutsuneak BOTIKA hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (B, O, T, I, K eta A). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

Itzala



Pelloziriren laguna harrokeriatan aritu da: sua piztu du! San Juan bezpera dela uste al du?! Suaren gainean jauzi egin duen batean, puzkertxo batek ihes egin dio, eta brokoli asko jan ostean izan denez, gaseoso samarra atera zaio gizaioari, eta, jakina, su hartu dio... Zein da bere itzal zuzena?





PELLOZIRI SUTAN, LABIRINTOAN

Egilea: Garbiñe Ubeda

Ai ene, Pelloziri sutan dago. Bere txakurrak —Alaitz du izena— sekulakoak egin dizkio: pilota hautsi (1), madalenak lapurtu (2), izozkia lurrera bota (3) eta etxean kaka egin (4). Lagun iezaiozu txakur bihurri hori harrapatzen, urrutira ospa egin baino lehen. Zoaz laukiz lauki, aipatutako segida errespetatuz. Banan-banan aurreratu behar dituzu, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean. Gero, pasatu dituzun laukietako hizkiak bata bestearen atzetik jarri eta esaera bat agertuko zaizu. Idatz ezazu:



Gure aspaldiko arbasoek ez zuten guk bezala hitz egiten, ez horixe! Baina bada truku bat ama-alaba hauek esaten ari direna ulertzeko.

QHQAAMWWWA,
YVAMWWWAYV!
WWWUSQHQTE DUTWWW
SYVEKUQHQLAKOYV
AURWWWKIKUNYVTZA
EGIYVNGO
DUQHQLALAWWW
QHQAURWWW



Mezu gordea

Ezaba itzazu WWW, YV eta QHQ guztiak eta hortxe agertuko zaizkizu esaldiak.

WWWGAURYVKO
QHQUMEWWWEK
YVEZ DAKIYVTEQHQ
ZER YVASMAQHQTU
NAGUWWWSIEN
ARQHQRETA
BEREQHQA-
NATZEWWWKO

Denbora-pasen erantzunak hemen.



«Etikoa eta errespetuzkoa izan daiteke, baina arau batzuk jarraitu behar dira»

MIRIAM DEL RIO
KAZETARIA

'Dark tourism' edo turismo iluneko gidaria da Miriam del Rio; gaiari buruzko bi liburu argitaratu ditu eta, gaur, hitzaldia emango du Amalur jardunaldietan

Aitor Arroyo Askarai

Heriotzarekin era batera edo bestera lotuta dauden edo sarraskiak gertatu diren lekuak bisitatzea da turismo iluna; eta hilerri bat, espetxe bat eta hiri mamu bat bisitatzen dituen, turista iluna. Horri buruzko bi liburu argitaratu ditu Miriam del Rio (Bartzelona, Herrialde katalanak, 1980) historian eta kulturen espezializatutako kazetariak, eta gaiari buruzko hitzaldia emango du, gaur, Tolosako Amalur jardunaldietan. Gaia maite duenaren irrikaz aurreratu ditu turismo iluna ulertzeko hainbat gako.

Nola izan zenuen turismo ilunaren berri?

Haren berri izan baino gehiago, jakin gabe egiten nuen. Eta, egia esan, jende askori gertatzen zaio hori, hau da, turista iluna da horretaz jabetu gabe. Izan ere, nork ez du noizbait bisitatu hilerriaren bat, presondegiren bat edo kontzentrazio esparruren bat? Horiek guztiak turismo iluneko lekuak dira.



Funtsean, bidaia egiten nuen; eta bisitatzen nuen leku bakoitzean historiaren «b aldea» bilatzen nuen. Beti saiatzen nintzen ikertzen zein bisita bitxi edo ezberdin aurki nezakeen leku bakoitzean. Gainera, bidaia-gidaria naiz, beraz, jaiotzatiko akats bat ere bada [barrez]. Ohiko bidaia moldetik ateratzen saiatzen naiz, eta zerbait ezberdina eskaintzen. Gaia ikertzen hasi eta konturatu nintzen egiten nuena turismo ilun bezala izendatzen zela; eta baditu izen gehiago ere: turismo morbidoa, tanatoturismoa... Dena dela, nabarmendu nahi dut gertaerak zein lekuak beti lantzen ditudala ikuspegi historiko eta kultural batetik. Egia da jende asko iristen dela zati tetriko edo makabro horren bila, baina nire liburuen, bidaien zein ibilbideen oinarria beti da historikoa.

Nondik datorkizu interesa?

Betidanik erakarri naute toki eta istorio horiek. Dei iezaiezu goibel, dekadente, ilun... Aukeran jartzen badizkidazu hilerri goibel bat eta Dominikar Errepublikako hondartza bat, badakizu zer aukeratuko duzun [barre txikiarekin]. Izan ere, dena ordaindu duzula erakusten duen eskumuturreko batean datzan turismo tipikoa... niretzat, hori bai dela benetan turismo iluna [barrez].

lhes egiten diot horri. Gehiago interesatzen zaizkit istorioak, pertsonak... Gauzak bertatik bertara eza gutzea atsegin dut, ez zait batere gustatzen kontatzen didatena bakarrik jakitea. Azkenean, leku horiek zerbait berezia helarazten dute. Modu batera edo bestera heriotzarekin lotutako lekuak dira eta, jakina, historiaren pisua hor dago beti.

Gaur hitzaldia emango duzu Amalur jardunaldietan. Zer topatuko du bertaratzen denak?

Hitzaldira joaten direnei turismo iluna, oro har, zer den azalduko diet. Baina, batez ere, erakutsiko diet ez dela turismo mota bat, zeina jende jakin bati bakarrik bideratuta dagoen. Turismo iluna egiten dugun guztiok ez gara morbosoa eta goibelak; ez gara goitik behera beltzez janzen eta ez gaude tatuajez beteta [barrez]; izatez, guztiz kontrakoa naiz ni. Eraku-



Londresko Ebakuntza Antzoki Zaharreko anestesia aurreko operazio gela; ebakuntzak nola egiten zituzten eszenaratzen.

tsiko dut turismo iluna iceberg bat bezalakoa dela: azaleko ehuneko hamarra ezagutzen dela, eta azpian dagoela ehuneko laurogeita hamar. Bada, ehuneko laurogeita hamar horri buruz hitz egingo dut: zein den turismo ilunaren jatorria, nork sortu zuen hitza, noiztik egiten den...

Horrez gain, mota ezberdinak ere aurkeztuko ditut: existitzen da gerrei eta sarraskiei buruzko turismoa, espetxeen ingurukoa, hilerrietakoa, etxe sorgindue-na... Eta izatez, badira erromesaldiak pertsonaia ospetsuak hil diren tokietara ere.

Bigarren liburuan erantsi duzun kategoria berezi bati buruz ere hitz egingo dut: muturreko esperientziak. Horietan lehen pertsonan bizi ditzakezu interesa piztu dizuten istorioetako esperientziak. Adibidez, Sarajevoko ostatu batean irits zaitezke hiri setiatu batean bizitzea zer den sentitzera edo Indiarra joan eta 20.000 arratoi sakratu baino gehiago dituen tenplua bisitatu dezakezu. Historiaren parte izango zaren esperientziak dira.

Aipatutako guztiaz gain, turismo ilunaren inguruan



Whitby abadia (Erresuma Batua), Bram Stokerren inspirazioa *Drakula* idazteko.

dauden gauza asko desmitifikatuko ditut, eta estereotipoak ere eraitsiko ditut. Finean, *dark tourism* zer den azalduko dut.

Muturreko esperientzia horiek badute arrisku puntu bat, ezta?

Noski; halaxe da. Munduan dauden gauza askori buruz hitz egiten dut, eta hainbatek nire liburuak bi-daia-gidatzat hartzen ditu; baina sofaren erosotasunetik ere goza daitezke. Leku askori buruz hitz egingo dizut, baina ez denak bisita ditzazun; baizik eta existitzen direla jakin dezazun.

Adibidez, Txernobyl inguruko Pripyat (Ukraina) hiri mamua bisitatzen duzunean –zoragarria da, leku

«Turismo ilunaren inguruan dauden gauza asko desmitifikatuko ditut, eta estereotipoak eraitsiko ditut»

abandonatuak gustatzen zaizkigunontzat– Geiger kontagailu batekin joan behar duzu, eta gomendatzen dute lekua bisitatu ondoren erabilitako arropa botatzea. Bestalde, Papua Ginea Berriko kanibalen tribu bati buruz hitz egiten badizut, ez da joan zaitez; agian ez baitzara itzuliko [barrez]. Ez, hau guztia mundua oso handia dela konturatzeko da, eta oraindik leku asko daudela, zeinak ezezagunak bezain liluragarriak diren.

Nola topatzen dituzu leku berriak?

Nire bidaietatik informazio asko ateratzen dut; nire ehiza barruti pribatua dira pixka bat [barre txikiarekin]. Maite dudan gai bat denez, bidaiariei hitz egiten diet eta horrek, azkenean, konfiantza giro bat sortzen du. Elkarri tokiak gomendatzen dizkiogu, eta gauza batek bestera eramaten zaitu. Egia da kontinente batzuetan zailagoa dela gaiak aurkitzea edo aukera mugatuago dela. Afrikan, adibidez, aukera zabala dago sorginkeriarri, buduari edo kolonialismoari buruz; baina batzuetan zaila da gai horietatik ateratzea.

Hori dela eta, liburuak osatzeko garaian, batzuetan, kosta egiten zait borobiltzea, denetik pixka bat egotea nahi dudalako. Argi dagoena da Europan, Amerikan eta Asian turismo ilun gehien dauden lekuak direla. Baina Afrikan eta Ozeanian ere gauza interesgarri –eta ezezagun– asko daude. Benetan interesa baduzu, informazioa aurkituko duzu; baina lan egin behar da horretarako.

Pentsa liteke turismo ilunaren kontua zerbait berria dela; baina, izatez, aspalditik dator, ezta?

Aspalditik dator, bai. Erromatarren garaian zirkuak eta koliseoak, exekuzio publikoak Erdi Aroko garaian, urkabeak, iraultza frantsesaren garaian gillotina... Eta

«Hainbatek nire liburuak
bidaia-gidatzat hartzen ditu;
baina sofaren erosotasunetik
ere goza daitezke»

ildo antzekotik, Waterlooko (Belgika) gatazkan jende aberatsak gudua gurdietatik begiratzen zuela ere aipatzen da. Hori guztia turismo iluna zen; kontua da hitza ez zegoela egina.

Zentzu horretan, Ponpeia (Italia) bisitatzea ere turismo iluna da?

Hori da, baina jendeak ez du bere horretan ikusten. Nire liburuetan ez da Ponpeia azaltzen, oso ezaguna iruditzen zitzaidalako; baina ezin hobeto sar liteke kategoria horretan.

Azken urteetan gorakada bat izan da arloan. Zergatik izan liteke?

Nire teoria garatu dut. Gaur egun turismo eskaintza zabala dago, baina, azken finean, beti gauza bera da: itsasontzi bidaia tipikoa eskumuturrekoarekin; ez dakit non egonaldi ordaindua... Azkenean, ordea, jendea nekatu egiten da eta zerbait ezberdina bilatzen du: seduzitu eta erakarriko duen zerbait.

Jendeak aisiarekin lotzen ditu leku batzuk, non ez-beharrak gertatu diren. Ez al da existitzen gertakari horiei garrantzia kentzeko arriskua?

Leku hauetan egin behar dena da bisitatu, baina beti arau batzuk daudela kontuan hartuta. Turismo ilunak arau batzuk izan behar ditu. Kontua da denek ez dituztela betetzen; eta, hein batean, hortik dator turismo ilunaren fama txarra. Kontzentrazio-eremu bat bisitatzeko ari bazara, bertako arauak errespetatu behar dituzu: ez egin argazkirik onartzen ez denean, ez fribolizatu lekua, ez atera argazki txepela sare sozialetara igotzeko, isilik egon... Turismo iluna etikoa den? Bai, baina egiten duen pertsonaren arabera. Guztiz etikoa eta errespetuzkoa izan daiteke, baina oinarritzko hezibide arau batzuk jarraitu behar dira.



Nicholas Cage aktorearen hilobia (zeina ez den oraindik hil), AEBetan.

Uztartu al daitezke turisten jakin-mina eta tokiko biztanleen intimitatea edo errespetua?

Posible da. Gertatzen dena da turismoa edukazioz egin behar dela. La Palmako (Kanariar uharteak, Espainia) sumendia lehertu zenean jendea aritu zen eremu babestu batetik erupzio osoa ikusten, argazkiak egiten eta liluratzen sumenditik jaitsi zen laba mihia-ekin. Eta, ondoan, jendea negarrez, etxea galduko ote zuen ez zekielako. Hori da kontua: egin nahi baduzu, egin; baina kontuz eta errespetuz egin. Esate baterako, argazki bat atera nahi baduzu, urrundu pertsona horrengandik. Egin daiteke, baina kontuz ibili behar da eta tentuz jokatzen jakin behar da, noski.



IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

EGU RAL DIA

OSTIRALA

Giro nahasiagoa. Goizean hodeiak eta ostarteak, baina giro argi eta atsegina nagusituko da. Arratsalde partean hodeiak ugartuko dira eta ez da baztertzen tantaren bat botatzea. Hala ere, oso euri gutxi izango da. Hego, hego-mendebaldeko haizea zakar edo oso zakar jotzen jarraituko du, nahiz eta, indar pixka bat galdu. Temperatura jaitsi egingo da, 13-15 graduan joaz goia.

LARUNBATA

Antzeko giroa. Goizean eta arratsaldeko ordurik gehienetan hodeiak eta ostarteak tartekatuko dira, non hodeiak ugariagoak izango diren egunaren bigarren zatian. Hala ere, ordu horietan nahiko ateri eutsiko dio. Gauean, hodeiak are gehiago trinkotuko dira eta orduan euritara joko du, nahiz eta, ez den euri askorik espero. Hego-haizeak nahiko zakar jotzen jarraituko du eta tenperatura antzeko kokatuko da, 13-15 graduan joaz goia.

IGANDEA

Giro kaxkarragoa. Egun osoan zehar hodeiak nagusi izango dira eta hodei hauek tarteka zaparrada batzuk utziko dituzte egunean zehar irregularki banatuta. Hala ere, litrotan ez da euri askorik espero eta aterrun batzuk izango dira. Hego-mendebaldeko haizeak indar pixka bat galduko du. Tenperaturaren ez da aldatarik emango, 13-15 graduan joaz goia.

ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...*

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Prezioa

17€

51€

56€

Atarikideek

13€

36€

42€

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

FARMAZIAK

MARTXOAK 8, OSTIRALA

TOLOSA

Egunekoa. Leyre Lejeune Maset.
Euskal Herria, 24.
943 67 32 74.

MARTXOAK 9, LARUNBATA

TOLOSA

Egunekoa. Lourdes Azpiroz Galarza.
Larramendi, 6-behea 1.
943 67 51 18.

MARTXOAK 10, IGANDEA

TOLOSA

Egunekoa. Eurne Bengoetxea.
Kale Nagusia, 8. 943 67 06 48.

MARTXOAK 11, ASTELEHENA

TOLOSA

Egunekoa. Eurne Bengoetxea.
Kale Nagusia, 8. 943 67 06 48.

EGUNERO

GAUEKO GUARDIAKO FARMAZIA: TOLOSA.

LOURDES AZPIROZ GALARZA.
LARRAMENDI, 6-B1. 943 67 51 18.



saridunak

txoko morea



'EMARIAK' liburuak.

KALAKA:
Aholkularitza, diseinua eta formakuntza feminista.
www.kalaka.eus deskargatu EmariAPP, emakume erreferenteak ezagutzeko jolasa: emariapp.kalaka.eus

- Arritxu Uranga (Berastegi)
- Ana Goikoetxea (Elduain)



'GARI ETA GOROLDIOZKO' liburuak.
SUSA argitaletxea. www.susa-literatura.eus




- Aitziber Urruzola (Alkiza)

- Onintza Lasa (Tolosa)




'KONTRAKO EZTARRITIK' liburuak.
SUSA argitaletxea. www.susa-literatura.eus



- Maixux Usandizaga (Villabona)



'NASH' liburuak.
IBAIZABAL argitaletxea.
www.ibaizabal.com/eu



'GORPUTZEN BURUJABETZA' liburuxka.
BILGUNE FEMINISTA. www.bilgunefeminista.eus

- Josune Agirrezabala (Tolosa)

'Dena aldatzeko ari gara' koadernoak.
BILGUNE FEMINISTA. www.bilgunefeminista.eus

- Omaira Zubeldia (Amezketza)



BELARRITAKO PAREA.
HYLE buztinezko belarritakoak.
Instagram: [@hyle_earrings](https://www.instagram.com/hyle_earrings)



- Irune Iraola (Ibarra)



13 urte bitarteko gaztetxoentzat



3 sorta zozketan!



Patinetea eta margo kutxa saridun bakoitzarentzat!

ataria
Ataria.eus • 107.6 fm

Parte hartzeko eta informazio gehiagorako:
Ataria.eus
Epea: Martxoak 13, asteazkena, 12:00ak arte



Zozketaren babeslea:

asegurogintza
aseguru aholkulariak asesoria de seguros

2MÓ 99€

erreflexuen aurkako
betaurreko graduatuak

Kontsultatu optikan kanpáinaren ezaugarriak.

multiópticas

www.multiópticas.com



943 69 84 70
San Frantzisko, 23
TOLOSA



eskatu hitzordua
WhatsApp
bidez